



Iritziak

Krutwig: 1921-2021



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Aurten betetzen da Federico Krutwig Sagredoren jaiotzaren men-deurrena eta bere obra erraldoiaz lerro xume batzuk idaztera noa, gure gazteriak jakin ditzan eginiko hainbat ekarpen. Izan ere, bere luma oso oparoa izan zen eta ekarpen asko egin zizkion euskarari, politikagintzari, literaturari, ekonomiari... Erromako erbestean bera ezagutzeko parada izan genuen, 1970ean, eta aukera berarekin intelektualki aberasteko. Gerora ere berarekin Bruselan eta Euskal Herrian egoteko zortea izan nuen eta beti, bere buruan, Euskal Herria.

Federico euskaldun berria zen eta 26 urterekin, Azkueren eskutik, euskaltzain oso izendatu zuten. Euskaltzaindian ere ez zen ezkutuan ibili: hasteko, bertako bilerak euskaraz egitea lortu zuen; bestetik, euskara batuaren alde egin zuen. Beraren ustetan euskara batuaren oinarriak lapurtera klasikoan zeuden, tradizioko euskara kultuan, jadanik Leizarragak eta Axularrek idatzi zuten euskarari. Aranismoak erabiltzen zuen euskara garbiaren aurka zegoen eta greziera klasikotik zetozen termino kultuak maileguan hartu behar zituen, hizkuntza aurreratu eta aberatsa erdietsi nahi bazen. Berak euskara hori erabiltzen zuen: lapurtera klasikoa. Horrela, Euskaltzaindiako ekitaldi batean Eliza Katolikoa gogor kritikatu zuen euskararen aurkako politika koloniala zeramalako. Eta ondorioz ihes egin behar izan zuen Iparral-

Marxek aurreikusten
zuen langileriaren
iraultzak zentzurik ez
du izango, iraultza
burutzeko proletalgoak
gaitasunik ez baitu, bai
ordea jakintza gorena
duen eliteak

dera, non Likiniano, Kasilda eta beste hainbat iheslarirekin elkartuko zen.

Hizkuntzak ikasteko erraztasuna zuen eta zioenez hamabost hizkuntza menperatzen zituen, persiar zaharra ahaztu ondoren. Prentsa agentzietan oso erraz aurkitzen zuen itzultze lana. Mao-ren aipuak ere itzuli zituen.

Krutwigek euskal abertzaletasuna berritze aldera lan eskerga burutu zuen eta bere ekarpen nagusiak hiru liburutan jasoko nituzke, nahiz bere obra politikoa arras oparoagoa izan: *Vasconia* (1963), *La Cuestión Vasca* (1965) eta *Computer Shock. Vasconia. 2001* (1984).

Vasconia-n aurkituko dugu Euskal Herri Handiaren historia, zein gaur egungo Akitania Berriak, Nafarroak eta EAEk osatzen duten euro-erregiora hurbiltzen den. Halaber, euskal nazioaren oinarri nagusia ez da arraza, aranismoak zioen

bezala, hizkuntza baizik, eta bigarren maila batean kultura eta mentalitatea, erlijioa, arraza eta ezaugarri ekonomiko-sozialak. Naziogintza prozesu dinamikoa da (Marx-Kropotkin) eta horrela lortuko du estatu bilakatzea, marxistek (Lenin) zioten bezala erabakitzeke eskubidea eskuratu ostean (*La Cuestión Vasca*). Prozesu politiko hori baketsua izango da, alabaina diktadurak edo demokrazia ezak galarazten badio Euskal Herriari independentea izatea, zapaltzaileen estatuaren aurka borroka armatuta jauzi egitea zilegi litzateke. ETaren V. Biltzarrean parte hartuko du eta onartuko dira bere hainbat teoria, Biltzar Ttipiko kide izatera heldu zelarik.

Erbestetik itzulita, Krutwigek *Computer Shock* idatziko du non, igarle moduan, konputagailuen iraultzak dakarren aurreikusiko duen eta Euskal Herriak zer egin behar duen aurrerabidearen gurpila ez galtzeko. Etorkizunean makinek pertsonen adimena eskuratuko dute eta makina batzuek, robotek, proletalga ordezkatu. Ondorioz, Marxek aurreikusten zuen langileriaren iraultzak zentzurik ez du izango, iraultza burutzeko proletalgoak gaitasunik ez baitu, bai ordea jakintza gorena duen eliteak. Eta horretarako euskal elite sortzailea eratu eta elikatu behar da: Sophopolisen, jakitunen hirian, euskal elitearen bilgunean, non asmakizun gorenak emango diren.

Krutwig, ezagutu behar den euskal igarlea da. ●